



JOSTAILUAK SEGURU EROSI ETA GEHIAGO ETA LUZAROAGO GOZATU

Jolasa umearen ikasketa laborategia da. Honen bidez, umeak garatu egiten dira eta beren inguruko mundua ezagutzen ikasten dute.

aurrera doan herria

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo

Denok dakigu gaur egun ehundaka mila jostailu fabrikatzen direla; merkaturako jostailu asko eta oso onak diren jostailuak aurki ditzakegu, eta hain onak ez direnak ere bai. Baina, nola jakin dezakegu zein jostailu den gure seme/alabarentzat egokiena?

Horretarako bi alderdi garrantzitsu izan behar ditugu kontuan:
Gomendio pedagogikoak.
Segurtasun arauak.

GOMENDIO PEDAGOGIKOAK

- Kontuan izan umearen zaletasun eta beharrak, ez helduarenak.
- Interes berriak suspertzen baditu, askoz hobeto.
- Umearen adinarentzako egokiak diren jostailuak aukeratu.
- Jostailuak ez dira mutilentzat edo neskentzat.
- Paketatze erakargarriak eta prezioak ez zaitzala gehiegi erakar: jostailu garestienak eta erakargarrienak ez dira beti onenak izaten.
- Ume bati jostailu asko erosiz gero, posible da interesa galtzea eta aspertzea. Hobe duzu kalitatea aukeratzea.
- Alderdi ezberdinak lantzen dituzten jostailu ezberdinak erosi.
- Umea protagonista izan behar da, ez ikusle soila.
- Garrantzitsuenak: zure seme/alabekin batera jostailuez gozatzea.


«CE» IKURRA

«CE» azterketa erakunde baimenduek burutzen duten prozedurari dagokio. Prozedura honetan jostailuek gutxienezko segurtasun eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen eta ziurtatzen dute.

«CE» ikurra lortzeko ekoizleek honako hau aurkeztu behar dute:
Azterketa egiteko eskakizuna.
Jostailuaren deskribapena.
Fabrikatzailearen izena eta helbidea.
Fabrikazio modua.
Jostailuaren ale bat.

Eredu honekin zenbait froga egiten dira, segurtasun eta osasunarentzako arriskurik ez duela ziurtatzeko.

Frogak gaintitzen baditu, «CE» ikurra ematen zaio. Fabrikatzaileak jostailua merkaturatu sartzeko baimena izango du, eta «CE» ikurra ikusgarri egon beharko da jostailuan edo honen bilgarrian.



ETIKETATZEA

Jostailuak izan behar dituen oharren artean, beharrezkoak diren gutxienezko zenbait datu daude:

- «CE» ikurra.
- Produktuaren izena, helbidea eta marka.
- Fabrikatzailearen, EBak baimendutako ordezkariaren edo inportatzailearen helbidea.
- Elektrizitatez dabilzan jostailuentzat, gehienezko potentzia, elikadura tentsioa, eta energia kontsumoa.
- Erabileraerako jarraibide eta aholkuak.

SEGURTASUN ARAUAK

Erne egon erosten duzunarekin, etiketak, paketatzeak edota jarraibideek gerta daitezkeen arrisku guztiez ohartarazi behar gaituzte.

Arrisku fisiko eta mekanikoak

Su hartzeko arriskuak

Arrisku kimikoak

Elektrizitatearen inguruko arriskuak

Higienea

ERABILERA OHARRAK

Jostailuek jarraipen irakurgarriak izan behar dituzte, erabilera izan ditzakeen arriskuak ahalik eta gehien gutxituz.

- **“Ez da 36 hilabete baino gutxiagokoentzako aholkugarria”.**
- Txirrista eta beste kolunpioetan bere osagaien segurtasuna bermatzen duten aldizko azterketak egitearen beharra adieraziko da.
- Kimika jostailuak 10 urtetik gorakoei zuzenduko zaizkie, eta honako oharra izan beharko dute: **“Erne! Gai arriskutsuak dauzka”.** Era berean, aipatu beharko ditu zein lehen laguntza erabili, istripua izanez gero.
- Irristailu eta patineteetan honako oharra aurkitu beharko dugu: **“Erne! Erabili babes tresneria aproposarekin”.**
 - Ur-jostailuetan honako oharra aurkitu beharko dugu: **“Erne! Umea zutik egon daitezkeen uretan bakarrik erabili, eta heldu baten begiradapean”.**
 - Babes tresneria irudikatzen duten jostailuetan, hala nola kaskoak, betaurrekoak... honako oharra agertu beharko da: **“Istripua gertatuz gero ez du babesik ematen”.**